

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA

1 INFORMAZIO OROKORRA

- Prestakuntza arloa Biztanleria - Berdintasuna
- Modalitatea Lineakoa
- Hizkuntza Euskara
- Iraupena 15 ordu

Hartzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak

Egutegia

- 1** Matrikulazioaren azken eguna
Urtarrilaren 8a: administrazio orokorra (*)
Urtarrilaren 12a: beste administrazio batzuk
(* **Oniritzi epea urtarrilaren 9tik 12ra izango da**)
- 2** Bajen jakinarazpenak
Otsailaren 2ra arte
- 3** Ikastaroaren aldia
Otsailaren 5a: hasiera eguna
Otsailaren 23a: amaiera eguna

Ikastarorako sarbidea

<https://autoprestakuntza.euskadi.eus>. Ikastaroa hasi baino bi egun lehenago, mezu elektronikoko bat jasoko duzu, erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin. Gogoratu ikastaroa hasten den egunera arte ez dela sarrera gaituko.

Prezioa

112,35€

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena. (uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.)

2

IBILBIDEA

Ikastaroaren gaiarekin erlazionatutako prestakuntza-ekintzak:

- Oinarrizko ikastaroak**
 - Fitxa honen xede den ikastaroa
 - Formación básica sobre igualdad de mujeres y hombres
- Berriazko ikastaroak**
 - Genero-indarkeriari buruz jakin behar duzuna
 - Lo que tienes que saber de la violencia de género
 - Hacia un uso igualitario del lenguaje y la comunicación en la administración
 - Nuevos enfoques de los tiempos: la corresponsabilidad y la conciliación
 - Análisis de datos e indicadores de género
 - Herritarrei arreta emateko tresna baliagarriak berdintasuna lortzeko bidean
 - Eguneroko lanari genero ikuspegia txertatu
 - Herramientas útiles para la consecución de la igualdad en la atención a la ciudadanía
 - Integrar la perspectiva de género en el trabajo diario

3

HELBURUAK

Helburu orokorrak

- Emakumeen eta gizonen artean gaur egun dagoen desberdintasunari buruz eta desberdintasun hori gutxitzera bideratutako politika publikoak ezartzeko beharrari buruz hausnartzea ahalbidetzen duten kontzeptuetara hurbiltzea.
- Diskriminazioaren egiturazko jatorria eta emakumeek eta gizonek espazio desberdinetan duten jarrera desberdina testuinguruan kokatzea eta haien rola identifikatzea (diskriminazioa betikotzea).
- Berdintasun-politiken testuinguruari, esparruari eta ibilbide historikoari buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratzea.
- Erakundeek benetako berdintasuna lortzeko abiarazitako ekintzak ezagutzea: estrategiak, ekintza positiboak, genero-ikuspegia txertatzea, etab.
- Gaur egungo testuinguruan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna betikotzeari buruzko hausnarketa kritikoa egitera gonbidatzea, eta, horren ondorioz, administrazioak ematen duen arreta indibidualean zein kolektiboan hobekuntzak sartzeari buruzko ekintzak ezagutzea (genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen jakinda).



Gaitasunak

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gai izango da:

- Desberdintasuna gizartean eraikitzen laguntzen duten sozializazio-mekanismoak azaltzeko
- Gizartean emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta zeregin desberdinei buruz jarrera kritiko bat garatzeko
- Lan-jardueran emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jarduteko estrategia batzuk identifikatzeko
- Erakundeek benetako berdintasuna lortzeko hasitako ekintzak definitzeko, eta gomendioak txertatzeko lan-eremuan.

4

PROGRAMA

1. MODULUA

Desberdintasunaren eraikuntza soziala sozializazioaren bidez

1. Sexua/generoa sistema
2. Genero-rolak eta -estereotipoak: horien transmisioa eta ondorioak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean.

2. MODULUA

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko kontzeptuak ikasten

1. Berdintasunaren inguruko oinarritzko kontzeptuak.
2. Lan-esparruarekin lotutako oinarritzko kontzeptuak.
3. Emakumeen partaidetza- eta sustapen-estrategiekin lotutako kontzeptuak.
4. Komunikazioaren arloko kontzeptuak.
5. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko kontzeptuak.
6. Hezkuntza-arloarekin lotutako kontzeptuak.

3. MODULUA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean

1. Mugimendu feminista eta bere garapena historian zehar.
2. Legezko berdintasunak ez dakar benetako berdintasuna.
 - Diskriminazioaren aurkako politiketatik berdintasun-politiketara.
3. Beharrezkoa al da berdintasunaren arloko politika publikoei buruz hitz egitea?
4. Genero-diskriminazioa prebenitzeko eta desagerrarazteko tresnak:
 - berdintasun-politiken esparru teorikoa eta lege-esparrua
5. Genero-ikuspegia, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko tresna.
6. Ekintza positiboak eta genero-mainstreaminga, berdintasuna lortzeko estrategiak.

Metodologia:

Autoprestakuntza ikastaroa, online, eta tutoretza gabekoa. Ikastaroak hainbat unitate didaktiko ditu, baita ariketa praktiko eta hausnarketa-ariketa batzuk ere.

5

EBALUAZIOA

Ebaluazioa

- Ebaluazioaren helburua izango da ikastaroaren helburu orokorrak bete direla bermatzea. Ikastaroaren ebaluazioan, 4 jarduera daude eta on-line erantzun beharreko galdetegiak dira.

Aprobetxamendua

Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- Gutxienez 3 jarduera gaindituta izatea

Ziurtagiriak

Ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria eskuragarri izango duzu posta elektronikoko jakinarazpena jasotakoan. Sartu "IVAPekiko izapideak", "Ziurtatzeak" atalean.

6

OHARRAK

Baldintzak

Posta elektronikoko kontu korporatibo bat, ikastarora joango den pertsona modu unibokoan identifikatzeko. Ez dugu onartuko postu bati esleitutako edo partekatutako posta-konturik.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 5.1 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak zehatzak izango dira, eta, behar izanez gero, eguneratuak. Hori guztia zehaztasun-printzipioa betetzeko.

Eskakizun teknikoak

- Nabigatzaileak: Microsoft Edge, Mozilla Firefox edo Chrome eguneratuak
- Interneterako konexioa, eta YouTube zerbitzuko atzipena zabalik

Laguntza

Laguntza teknikoa behar izanez gero:

- Deitu CAUko telefono zenbakira (945016) 440
- Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara

Administrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus